

Ezker abertzaleko zinegotziak Okendotaz gezurretan ari direla leporatu die Udalak

■ Asteartean zinegotziek lanak urbanizazio proiekturik gabe hasi direla salatu ondoren, argibideak eman ditu Udaleko Hirigintzako batzordearen buru den Iñaki Mugikak

Okendo plazan herritar talde bat bildu zen asteartean, Ezker Abertzaleak deituta, bertan egiten ari diren lanei buruz hitz egiteko.

Bertan egin ziren salaketek erantzun die Hirigintza Batzordeko buru den Iñaki Mugikak. "Erabateko ardura-gabekeria iruditzen zaigu Okendo inguruko bizilagunen artean ezinegona eta kezka sortzea udaletxe berriaren obrari buruz dudak sortzen saiatuz. Zinegotzi ez atxikiak, etengabe, legez kanpoko ekintzen itxura eman nahi dute Udal honen ekintza urbanistikoei dagokionez, eta hori ez dator errealitatearekin bat. Gehiago ez pentsatzera gonbidatzen ditugu eta orain-txe bertan auzitegiara jotzeko gu salatuzera, beraiek planteatzen dituzten legez kanpoko gauza guztiak, hori baita beren eginbeharra oposizio bezala."

Zinegotzi ez atxikiak salatu zuten hasita dauden zenbait lanek ez dutela urbanizazio proiekturik onartuta; konkretuki Goiegi, Zabalera eta Okendo aipatu

zizuten. Honen inguruan Mugikak gezurretan ez ibiltzeko eskatu die ezker abertzaleko zinegotzietan: "Hala ere, gomendatzen diet horren aurretik kontu izateko eta beren gezurrak ez sinisteko. 2008ko urtarrilaren 15eko eta 2008ko martxoaren 7ko Hirigintza batzordean, Baztarricka eta Goikoetxea ez atxikitako zinegotzien presentziarekin, behin betikoz onartu ziren Goiegi Ibarreko eta Zabaleta Berriko urbanizazio proiektuak. Edo gezurretan dabilta edo ez dute egiten lasarteoniarrek aukeratu zituztenean espero zuten lana."

Okendoko lanak aurrera egingo dute

Mugikak ziurtatu duenez, Okendoko lanak aurrera jarraituko dute: "Hirigintzako azken batzordean azaldu nuen moduan, obrarekin jarraitzeko asmoa dago horren garrantziaren eta urgentziarengatik, zeinaren proiektua onartua izan zen. Uste dut zuek zaretela obraren urgentzia ikusten ez



Ekainaren erdialdean itxi zuten Okendo plaza lanekin hasteko.

duzuen bakarrak, izan ere, oraingoa udal langile kopurua hartzeko txikia geratzeaz gain, ez ditu gutxieneko baldintzak betetzen herritarrei modu egokian harrera egiteko. Bitxia da, izan ere, udaletxea agintaldi honetan egiten ez badugu salatuko dute inbertsioak eta

governuko programa ez ditugula betetzen."

Hesia

Okendoko hesiari dagokionez, umorez hartu du Mugikak salaketa, "Hesiarena barregarria da. Broma batekin besterik ezin du erantzun:

hesia altxa beharko dugu gutxienez inguruko etxeetako azken pisuetaraino, bestela metalezko hesi horren atzean ezkutatu nahi duguna aurkituko dute: udaleko obra bat! Beharbada, "gardentasun" falta horrengatik ere auzitegiara jo dezakete." •



Oporrak bakean egitasmoaren bidez etortzen diren Saharako haurrak iritsi dira /2

UDALA /3

Udaletxe berriaren eta Okendo plazako berrantolaketa berri eman du Udalak



Beltzak taldeak errugbi eskola sortuko du herrian kirol hau bultzatzeko /4-5

DAKARA JATETXEA

Eguneko menua asteartetik ostiralera

Espezialitatea hostopiletan Errazioak Entsaladak Ogitaratekoak

Ez geratu ostegunetako gure nazioarteko afariak probatu gabe!!

Kale Nagusia 8 behea • Lasarte-Oria 20160 • Tel.: 943 575859



Saharako haurrak Lasarte-Orian dira

■ Uztailaren 11an iritsi ziren eta bi hilabete egingo dituzte gure herrian ■ Harrera familiekin egon gara solasean ■ Ostiralean, Udaletxean harrera izan zuten

TXINTXARRI

Goizero ikusten ditugu Sagardotegi kalean 9:30ak aldera baloiarekin jolasean edo bankuan hitz egiten. Bertan batzen dira eta ostean txokoe-tako begiralearekin doaz

Oporrak bakean egitasmo Saharako haurrak ditugu. Uztailaren 11ean iritsi ziren eta bi hilabete igaroko dituzten Lasarte-Orian.

Hilabete hauetan ekintza ugari burutuko dituzte, hala nola, txangoak Txikiparkera, Aquariumera edo Santa Clara irlara, Saharar festa, anbulantzia bat ezagutuko dute eta suhiltzaileei bista egingo diete.

Hau guztia, Saharan bizi duten egoera pixka batean alde batera utzi eta udara era ezin hobean igaro dezaten.

Lehenengo urtea

Haurrak txokoetan utzi ostean, harrera familiekin hitz egiteko aukera izan dugu.

Gehienek esperientzia errepikatzen dute aurten eta badago familia bat lehenengoz Saharako haurra hartzen duena.

Marga da Fahdaren harre-ra ama, "lehenengo aldia da eta zail egiten ari zait, nire alabarekin ordea oso ongi moldatzen da haurra," adierazi digu.

"Fahdak bederatzirte diturte eta dagoeneko bere izara du, horregatik erronka handia da niretzat," gaineratu du.

Egitasmoari buruz nola jakin zuen galdetu eta "nire ilobak haurra ekartzen zuen Saharatik eta oso pozik zegoen. Ideia ona iruditu zitzaidan eta animatu nintzen."

Sara eta Raquel ditugu beste bi harrera familietako kideak. Bigarren urtea dute biek eta bat datoz Margarekin lehenengo urtea zailena dena dioenean.

"Lehenengo urtea zail izaten da, lehenengo asteak batez ere. Herri berri batera iristen dira eta ez dute ezer ulertzen. Aldaketara ohitu arte behintzat zaila da," aipatu du Raquelek.

"Niri aurtin zail egiten zait, haur txikia dugu eta biak kontrolatu behar ditugulako, baina errepikatzeko esperientzia da," azpimarratu du Sarak,



Lasarte-Oriako alkatea, Iñaki Mugika eta harrera familietako bi kide Saharako kanpamentuetatik etorri diren haurrekin.

"Batzuk Saharan lehengusua edo lagunei entzundakoa dute buruan, hemen ongi pasatzen dutela eta gauzak ematen dizkietela eta hau paradisua dela usten dute,"

aipatu digu. "Arazo gutxi izan ditugu haurrekin, baina haurraren izaera oso garrantzitsua da. Normalean errespetsuz datoz eta hemengo ohituretara moldatzen dira," gaineratu du.

Ekintzak

Sara harrera ama izateaz gain, Oporrak bakean egitasmoa bultzatzen duen *Sahara herriaren lagunak* taldeko kidea ere bada.

"Giroa egokia da haien-tzat, gainera medikuari bisita egiten diote, Udalak antolatutako txokoetan daude, Saharako egoera ahazteko modu bat da," adierazi du Sarak.

"Txokoena oso ongi dator-kigu bai haurrei, baita harrera familiei ere. Haurrak oso gustura daude, lasai dabilta begirale eta beste haurrekin eta, gainera, haien hizkuntzan harremanak izateko aukera dute, herriarekin lotura mantentzeko," azaldu du Sarak eta "guri ere ongi dator-kigu

goiza libre izatea, etxeko gauzak edo erosketak egiteko. Haur gurekin balego, aspertuko litzateke," aipatu du Raquelek.

"Aurtin gainera igeriketa ikastaroa antolatu dugu, Udalen laguntzaz," aipatu du Sarak. "Igerilekua asko gustatzen zaie. Ez dute arriskurik ikusten eta beste haurrak bezala uretara botatzen dira, nahiz eta igeri egiten ez jakin," azpimarratu du Raquelek.

Udaletxean harrera

Ostiralean, ekintza berezia izan zuten haurrek txokoan ostean, Udaletxean harrera.

Batzar aretoan, Ana Urchuegia alkatea eta Iñaki Mugika alkate ordeak hartu zituzten eta alkateak opariak, liburuak, motxila, etb. banatu zizkien.

Ostean, argazkia atera eta haurrak opariei begira zeudela, haiekin eseri eta hizketan egon zen. •



Ana Urchuegia Lasarte-Oriako alkatea opariak banatu eta, ostean, haurrekin egon zen hizketan.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen irizti-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

‘Lasarte-Oriak hirigunea izango du azkenean’

■ Udaletxe berriaren eta Okendo plazako berrantolaketaren berri eman zuen Udalak ostiralean

TXINTXARRI

Ana Urchueguia alkateak, Iñaki Mugika hirigintzako batzorde buruak eta J. M. Elizegi udal arkitektoak Okendo eta udaletxe berriaren proiektua azaldu zuten ostiralean prentsaurrekoan.

“Duela bi egun hasi ziren lan garrantzitsuak, esate baterako, udal atzeko paretak, 24 urtez ikusi dudana, gaur edo astelehenean botako dute,” azaldu zuen Lasarte-Oriako alkatea eta “atzean dagoen misterioa bistara geratuko da,” gaineratu zuen.

Okendoko berrantolaketa

Elizegi arkitektoak azalduta-koaren arabera, “Okendoko berrantolaketan lehenik udaletxe berria egingo da. Gelto-ki kaleari diseino berria emango zaio eta Okendo plaza eta Brigitarren baratza batuko ditugu.”

Udaletxe berriak hiru elementu nagusi izango dituela aurreratu zuen “egungo udaletxe-ko eraikuntza, komentuko zati bat, monumento historikoa dena, eta eraikuntza berria.”

“Egungo Udaletxea bertutua da eta bere funtzio instituzionala izaten jarraituko du. Aldaketa bakarra sarrera izango da, arkupetatik egingo dena,” azaldu zuen Iñaki Mugikak

Monumentu historiko hori



Herritarrek, udaletxe berriaren zati izango den, Brigitarren arkupea ikusteko aukera izan zuten atzo.

arkupeak dira eta Okendo eta plaza eta lorategi berriak batuko dituen elementua dela gaineratu zuen Elizegik. “Arkupea gardena izango da, herritarrek bertatik arazorik gabe igaro ahalko dira,” aipatu zuen.

“Arkupeen bukaeran, eraikin berriari, Merceroren omeneko museoa kokatuko da,” adierazi zuen.

“Gainera, Udaletxeari arkupeak batzean, udalak bal-koia izatea ahalbideratuko

du, Okendora begira,” azaldu zuen ere udal arkitektoak.

“Okendo plaza oinezko-entzat geratuko da” aipatu zuen Mugikak eta “Lasarte-Oriak hirigune izango du azkenean,” gaineratu zuen alkateak.

“Plazaren azpian bi solairu egingo dira. 120 aparkaleku erdiguneko aparkaleku arazok konpontzeko eta lehenengo solairuan, Udaleko biltokia, etab egingo dira,” aipatu zuen Elizegik.

Diseinoa

Arkupeak berritzeko Foru Aldundiaren eta Jaurlaritzako diru-laguntza lortu duela azpimarratu zuen Lasarte-Oriako alkateak.

Honela, arkupeko fatxada berria, Okendo aldekoa, eta eraikuntza berria egun dauden materialekin egindakoak izango dira eta arkupearekin zer ikusirik ez dutenak. “Izan ere, ezin izan baitu mimetiko izan. Monumento historiko-koen legeak agintzen du,

ondoko eraikinak ezberdinak izan behar direla,” azaldu zuen Elizegik. “Arkupeak, gainera, eraikin berriarekin bat egingo du. Bigarren fatxada bat bezala izango da,” atxiki zuen.

Era berean, Brigitarren komentuko baratzean egingo den lorategiari buruz ere hitz egin zuen. “Lorategi berriak diseino berritzailea izango du eta zeuden baratzak irudikatzen saiatuko da,” azpimarratu zuen udal arkitektoak.

Lanen iraupena

Egun garbiketa eta segurtasun lanak egiten dihardutela azaldu zuen ere Elizegi jaunak, “pantaila paretak egiten ari dira eta landaretza kentzen. Segurtasuna bermatuko dute paretak horiek.”

“Hamabost hilabete lanean egingo dira. Hori da aurreikuspena. Baina auskalo, ia 300 urteko eraikuntza baita Brigitarrena,” azaldu zuen Ana Urchueguia alkateak eta “beraz, bi urteren buruan ikuspegi berria izango dugu,” gaineratu zuen.

Arkupeak ikusi

Atzo goizean, Brigitarren komentukoaren arkupea urrunetik ikusteko aukera egon zen.

Osasun zentro zaharraren ondoko atetik sartu eta barruko lanak ikusi ahal izan zituzten. •

Emanaldi intimista Miren abeslariak Jalgi kafe-antzokian eskainitakoa

Andoni Egaña, Xabier Euzkitze edo Pako Aristiren hitzak entzuteko aukera egon zen ostiralean Miren bakarlariak Jalgi kafe-antzokian eskainitako kontzertuan.

Herritar ugari hurbildu zen abeslari azpeitiarrak pianoa, soinua eta kontrabaxuaren laguntzaz eskaini zuen emanaldi intimista entzuterara.

Hiru ordu laurdeneko kontzertuan Mirenek estilo ezberdinak, jazzak, sirtakia edo tangoa, uztartzen dituzten abestiak aurkeztu zituen.

ETBko hainbat saiotan abeslari eta azken urtean *Oh Happy Day!* saioan epaile lanetan ibilia da Miren Fernandez. Nahiz eta hainbat proiektuetan murgildua egon, ez du bakarkako lana alde batera utzi eta ostiraleko kontzertua horren erakusle izan zen. •



Arg: Itziar Carrasco

Doinu afroak Chillida-Lekun

Makulu Ken taldeko kideek eta entzuleek aukera paregabean izan zuten larunbatean, izan ere, Chillida Lekuko zelaia holtza izan zuten.

XVI. mendeko baserria inguratu zuten duen zelaian eta Chillidaren le eskultura testigu zuela, talde lasarteoriarrak azkeneko bi urteotan prestatutako lana eskaini zuten.

Makulu Ken taldeak egiten

duen musikak dantzara gonbidatzen duen arren, larunbatean kontzertua ikustera gerturatu ziren gehienek zelaian eseri eta afrobeat, funk eta reggae doinuaz eta parajeaz disfrutatzea nahiago izan zuten.

Xpression! Kultur Elkar- teak Chillida Lekun antolatutako Uda Funk kontzertuen barne kokatzen da emanaldi hau. •

Beltzak RT: Herrian errugbia berpiztu nahian

■ Errugbi Eskola sortuko dute eta errugbia eskaini ikastoletako eskola-kirol programan ■ 25 urte bete ditu aurtan 1984an sortu zenetik ■ Bi urtean behin bidaiak egiten dituzte nazioarteko norgehiagokak ikusteko

Beltzak Rugby Taldeak, aurtan sortu zenetik 25 urte betetzarekin batera, kirol honi herrian bulzaratuko bat eman nahi dio eta zenbait pausu eman ditu: batetik Ostadarren egiturari ermuji saila sortu eta ermuji eskola jarriko dute murraratu eta bestetik Eskola Kirolaren programakuntzan ermuji eskainiko da herriko ikastoletan *Trakune*-ekin izan dituzten hartuemanen esker. Julius Egizabal eta Manu Pelaezek eman dituzte 25 urte hauetan egindakoaren eta etor-kizimenerako dituzten asmoen berri.

Jon AULTUNA

Lasarte-Oriako lehen errugbi taldea, 1984ko udazkenean 17 urte inguru zituzten Sasoteko gazteko beltzak osatu zuten. Euskal herriko Errugbi Eskola independentia bultzatzen zuten ermujiari hainbat talde ziren, Txina eta India ere sortu zituen beste bi talde eta Eskola-eremu honen helburua, Batasunaren Liga delitzen zutena antolatzea zen. Ipar eta Hego Euskal Herriko talde onenaren arteko ligaxka bakoitza, federazioetatik independentia, federazioetatik independentia izango zen lehaketa. "Ideia oso polika zen, baina zarraitasunak ere handiak ziren, ez gunduen federatuko, ezin erakundean ere ez eskatu, beti lehiari gara eta larri. Ahal zuten bidaiatu badugu ere, dena guk ordinarri" kontatu digute Beltzak taldeko kideak.

Hasieran, astean zehar, Dana Ona aurrerako aparkalekuan entretuzten zuten, "herrian agia zegoen toki bakarra zela", eta ingandien hipodromoan. Lehen lau urtean Lasarte R. I. izan zen. 1988an kirol-jantzi berriak erosi zituzten, beltzak bi marra zuriek, eta ondik bidaiari Beltzak des-zen dione, izen hori hartu zuten.

Lagunarteko partidak

Batez ere, Ipar Euskal Herriko taldean aurrerako lagunarteko partidak jokatzen zituzten. Jakina da, hain maila handia dagoela eta, beraz, partidu gehienak baldin egiten zituzten, "uste du gehin irabazi genuela Donibane Lohitzuzen, eta beste hainbat ere errugbian jokatzen izan ziren. Ahal zena egiten guren guren bikaldekinekin. Galduraren giroa bilakatu, alari bat ematen zituzten..." orotari dute beltzek. "Beste filosofia talde gurenuz da, defentsiboa zauden bezala, ez zen lehiakortasunik, lehiatu baino



Lasarte Rugby Taldea 1985ean. Oinondik ez ziren Beltzak.



Beltzak Hipodromoan. Eskubian Astar Aituna, Bionakoa Aviron taldeko jokalaria.



Beltzak Michellego zelaietan berrak. Zelaietan beltzen bi esku.



Julius Egizabal eta Manu Pelaezek eman dituzte "beltzen" asmoen berri.

Zenbait patusi eman dituzte, Aldundian Lasariako ermuji eskola-kirolaren programakuntzan ermuji sarretako. Seguraski, hurrengo ikasturtean hasiko da herriko eskolekin. "Guk Tartekekoen eta eskola nola planteatu daiten ez zela ermuji eman, aholkuak eta laguntza emana, baina trukean interesgarria da guretzat ere, errugbi proiektuak dituen gurekin baldin aukera izango dute eta".

Beltzak taldeko esperientzia handiko bosasei lagun prestatu dira Errugbi Eskolan montiore izateko. Asteazkenetan entrenatuko dituzte har eta gazteak. Cainera batzurtasun beste talde batzuekin lehiatuko dira. Eskola kirolko monitoriak, kanpoko taldeetan eta Zaratuzen izango dira. Maila altua dute, batzuk Euskadiko selektorean daude. Afitiro bat edo beste ere badute.

Zalaitsumak

Lasarte-Oriako beste kirolak bezala, Beltzak taldeko kirolen ustez, "futbolaren ere zelaiak baino talde gehiago daude. Ez dago kirol in-teresa handirik. Pautsak ematen ari diren baina oso motel, baina ez dituzte maila instalakuntza. Errugbi mailan 25 urte ondoren orduan bezala gaurde, Michellego zelaietan berrak. Zelaietan jokatzen guren partidu-



Sampredoran haurrentzako jardunaldia antolatzen duen Michelainen eta herriko nekasa-mutil beltzak ermujiaren aurtu ziren.

Guk asko zaindu dugu ondo pasatzea dela garrantzitsua. Gaztetroek ondo pasa behar dute.

izun ona izan dute, oraindik ez dutela ezer planteatu, baina momentu tristen denean kontutan izango dituzte, esan zuten Zaballos zinegotziak.

Irteerak

Bi urtean behin gutxi gorabehera bidaiak antolatzen dituzte. 2007an 24 lagun Eskozia eta mundialean izan ziren. Aurturri 1992an irlandarra. "Bidaia geuk ezin izan genuen, ahal zenuen bezala, literak zeulak autobuz-koan zuten zirenean, eta hainbat lekutan lo egin dugu, landegi zaharretan batean, aldagailu lurrean, lo sakuekin, baina meste-

zuzen, noski, gazte ginen eta berdin zituztela. Gu ginen karpota atzeratzen ginen bakarrik. Gipuzkoan ez da Europara ibili den talde federatutik, hainetik bakarrik jokatzen zuten. Oinon hasi dira batzuek".

Crotzaren onak dituzte eta gertakari, pasadizo zain bixirik ari ugari ere bai. Irlandan izan zirenean Dublinetik Belfastera joan ziren egiu bat pasatzeko eta "Kale"n autobusa galdur eta geroa azaldu zen Dublinera. "Alamantiar joan zirenean "Morosko"ri esan zioten han ez zegoela hemen bezala ogirik eta lozart hartu zuten baina gero han ogia eskatzen zioten denek. Eskozian izan zirenean, guztiak baxerantzez jantzi, batzuek paxolin jantziarekin, eta Edinburgh erdian kalejira egin zuten trikiti-xarekin.


Galtzaile onak izan gara: gehienetan galdur egiten genuen, baina hirugarren denbora beti zen gurea. Inon ez dugu arazorik izan eta esperientzia oso onak izan ditugu

- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma-armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

SUGATE Sukaldeak

MEKATUKO PREZIO HOBARENARI

DESKONTU BEREZIAK %20 desk. modelo desberdinetan



Paintore kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471 • LASARTE-ORIA • www.sugate.net

baina hirugarren denbora beti zen gurea. Benaen, jende oso naturala izan gara, parandara asko egin dugu, baina inon ez dugu arazorik izan. Esperientzia oso onak izan ditugu". Diote hainok Beltzak taldekoak. "Zer da horri? Oso taldekoak, dirrek honi esango dute, "ez zuten ezer irabazten". Nire uestez porroik ez zuten izan, galtzak izorritzen zuten, baina izan ditugun bizipenak oso positiboak izan dira".

Partidu gogorragarri asko jokatuz dituzte, baina bereziki katalunian jokatutako batez orotari ziren. "Montjuic-en jokatzen. Lehen mailako taldeak ziren Katalunian, eta zelaira ziera ortuko harrituta ziren. Gure arropak oso erabiltak zuten, erdi-hondatuta, ez gurekan berriak erosteko dirurik, noski, 17-18 urte izango ginen, uen ez zuten hain penstutako, baina irabazi egin genuen".

Filosofia berezia

Errugbi jokalarion penstasmoldide berezaz mintzatu ziren Beltzak: "Klub guztiak ez dira berdinak, baina jitu behintzat asko zaindu ditugu ondo pasatzea dela garrantzitsua. Gaztetroek ondo pasa behar dute. Horretan salatuko gara. Eta mutueko taldean hurgidur behar dute, denekin har- parte, har da, ez iriti eta jokatuko bakarrik zelai prestatu, baloak atera eta jaso. Ipar Euskal Herrian horrela egiten dute. Eta norgehiagokara amaitu denean, amaitu da eta aurkaria zure laguna da. Hori ikasi genuen eta hori erakusten saiatuko gara. Partiduan zehar izan daituzte liskarrak, baina gero baturako dira. Gogor jokatuko behar da, baina inori mirik eman gabe, ondo pasatu...". Frikatikari erakutsi diegu hirugarren denbora ere hor dagoela, ondoren elkarrekin zer- bait jan eta edatea. Cauza bakor- tza bere neurrian. Zurekin jokatzera etorri den taldeari amaten zerbitu eskaintzen zaito eta erak behar den bezalakoak baldin badira zu bere herrira joan eta bereziki ermuji gurea.

Errugbia gizatuzuna, erespota, begietuna, edafetuzuna, ahalge- ria, konpromisoz... ere bai. Oinon inon izan zirela erabilt dugu lelo bat, ermuji, bizi-erokia. •

TSSTko autobus gidariak lan baldintzak hobetzea eskatu dute

TSST konpainiako langileen izenean sindikatuek idatzi bat kaleratu dute, non haien erabilitzaileei haien zerbitzuen kalitatearen beherkadaren zergatia azaltzen baitute.

Honetan, gehiegizko orduak osasunean duen ondorioa aipatzen dute "autobusen ordutegia gehiegizkoa da, honek gidarietan estresa, antsietatea eta nerbioak sortzen ditu. Hauek osasun arazo larriak sor ditzakete..."

Gainera, honek ere "ordutegiak ez betetzea dakar eta beraz, erabiltzaileak dira egunero zerbitzuaren puntualitate eza sufritu behar dutenak," aipatzen dute oharrean.

Oharren bigarren arrazoiak autobus arazoak dira. "Mantenu arazo larria dago eta honek gidaritzaren erabil-tzaileen erosotasunaren kalte-rako da. Honetan, ezindu fisikoentzako egokitutako ranpei buruz hitz egingo dugu, ez baitabilta gehienetan," dio.

Eta azkenik, ibilbidean zehar dauden geltoki batzuen segurtasun eza aipatzen da.

Honela, oharren bukaeran konpainiari eta *Lurralde-busi* arazo guzti horiek konpontzeko eskatzen diete.

Gidariak erreta

Andoni Loinaz gidarien ordezkariak azaldu digunez, "autobusetako txoferrak erreta gaude ordutegiengatik. Gai-

nera, publiko aurrean guk eman behar dugu aurpegia eta azkenerako giroa txartu egiten da. Zerbitzua erabiltzen duena haserretu egiten da eta gidaria ere bai."

"Zuzendaritzara gure kexak bideratzeko bilera bat egitea eskatu genuen eta bost minutuko bilera izan zen. Zuzendaritzaren erantzun ezaren aurrean, idatzi bat edo zerbitzu egin behar genuela erabaki genuen. Idatzia pres-

tatu, esandako asanbladan aurkeztu eta onartu egin zuten langile guztiek," adierazi digu Andonik.

Zuzendaritza harritua

Santiago Sarasola, TSST konpainiako zuzendariarekin solasean egon gara ere.

Honek bere harridura azaldu digu, "duela bi edo hiru hilabete konbenioa sinatu eta arazorik ez genuen izan. Orain bilerarik gabe oharra

zabaldu dute eta gu prentsa-gatik izan dugu honen berri."

"Ez inolako aldaketarik egon ordutegietan. Beno udan, hobera egin dugu, arratsaldeko gidariak 15 minutuetako atsedena dutelako," aipatu du zuzendariak eta "denbora gutxi dutela eta estresatuak daudela, bakoitzak bere iritzia izango du," gaineratu du.

Autobusen mantenuari buruz galdetzerakoan, "man-

tenua betikoa da. Esate baterako, uda hasieran arazoak egon ziren haize egokitekin eta konpondu genituen," adierazi digu.

Ranpen arazoa onartzen du, "beti izan dira arazoak, baina ez gure enpresan bakarrik. Urduitasun handia sortzen dute erabiltzaile eta gidariengan ez dabiltzanean."

Eta gaineratu du, "oso arriskutsua da autobus segurtasuna dudan jartzea. Mantenua ongi egiten da. Autobus guztiek ITVa pasa dute eta ez dugu istripurik izan azken aldian. Matxurak ditugula! Normala da urtean 120.000 kilometro egiten dituen garraio batean."

"Geltokien arriskuarena aipatzean ere arrazoi dute," esan digu Sarasolak, "Billabona-Tolosa aldean daude gehienak. Foru Aldundiak horren berri du eta horiek aldatu edo konpontzeko ardur berea da."

"Aurreko Foru Aldundiko garraio delegatuari eman genion horren berri eta orain hasi dira lanean. Adibidez, Irurako geltokia obretan dago eta ea noiz bukatzen den," gaineratu du.

Bai gidariak, baita zuzendaritza ere bat datoz erabiltzaileei kalitateko zerbitzua eskaini nahi dietela esatean eta horretarako lan egingo dutela adierazi digute. •



Irudian, Mendigorriako txandako haurrak begiraleekin. Ederki pasa dute!

Kanpaldietako azken txanpa atzo abiatu zen Bermeotik

Aurten hiru kanpaldi antolatu ditu Ttakun Kultur Elkarteak. Dagoeneko bi txanda amaitu dira eta atzo abiatu zen hirugarrena.

Lehenengo txanda, txiki-nena, Mendigorriara joan zen uztailaren 3an eta 14an bueltatu ziren. Guztira 59 haur bildu ziren, lasarteoriarrekin batera, beste hainbat herritako haurrak.

Ekintza ugari egin dituzte eta gainera eguraldi lagun izan dute: bizikletekin irteerak egin dituzte, *Sendaviva* parke-ira joan dira, igerilekuan ibili dira, afari erromantikoa izan zuten... Hain ondo pasa dute, azken egunean, agurtzeko garaian, begi gorriak eta malloak dantzan ibili zirela.

Ostiralean amaitu zen bigarren txanda, zaharrenean, 29 gazterekin, *Kosta ala Kosta*.

Kanpaldi hau ibiltaria izan da, Garaion hasi eta Bermeon bukatu zuten. Hauek ere orokorrean tenperatura onarekin ibili dira, eguraldiarekin zorte ona izan dute.

Baina etapak oinez egiteaz gain, beste hainbat ekintza egiteko aukera ere izan dute. Esate baterako, piraguan ibili ziren Laidan, Atxarten berriz eskalatu egin zuten eta Bermeon, kanpaldien azken egunean kontzertuak izan zituzten.

Azkeneko txanda atzo abiatu zen, *KTG kanpaldia*. Honetan Lasarte-Oriako gazteak Durangokoekin batera egongo dira, guztira 65 lagun.

Kanpaldi hau ere ibiltaria da, Bermeon hasi eta Castron bukatuko dute. Bidean hainbat ekintza eta itsaso-kirolak egiteko asmoa dute, ea hauek ere eguraldia lagun duten. •

Igandea, 26

Meza eta luntxa

SANTA ANA EGUNEKO meza ospatuko da Brigitatarren komentuan goizeko 11:00etan. Ondoren luntxa izango da komentua kanpoaldean. 12:00etan berriz Santa Ana karkaban agurra dantzatzeko da.

Antzerkia

SANTA ANA EGUNEKO PARODIA antzeztuko da. Isla Plazan gaueko 22:30ean. Lehenbizi desfilea egingo da herriko kaleetan zehar iluntzeko 21:30ean. Desfilea Andatza plazan hasiko da eta Zumaburur amaitu.



Argazki erakusketa Jalgin

MADRILEN BIZI DEN RAFA ZUBIRIA Donostiarraren argazkien erakusketa ikusgai dago Jalgin. Txuri-beltzeko argazki sorta ederra uztailearen amaiera arte ikus daiteke.

UZTAILEAREN AMAIERA ARTE
JALGI KAFE-ANTZOKIAN

Kirol agenda

SANTA ANAKO PALA
TXAPELKETA. XXVIII.
EDIZIOA

Igandea 26

Kontsolazioko tanda

18:00etan, Jon Begiristain-Mikel Begiristain / Alain Etxebeste-Iñaki Lizaso (Iñaki Lizasoren lekuan, ordezkoa den Xenki Astiazaranez jokatzeko du)

Beroketako tartean erri-fen zozketa egingo da.

Finala

19:00etan, Iñigo Arluizaga-Imanol Bardaji / Xabier Etxezarreta-Mikel Bardaji

Partida amaieran sari-banaketa eta bertaratu-toko haurrentzako sorpresak izango dira.

Añorgako jaiak

20, astelehena

10:00etan, umeentzako tailerrak Rezola Museoa
14:00etan, koadrilen arteko bazkaria.

16:00etan, mus txapelketa azkarra.

18:00etan, Pilota goxoko, txapelketaren finala.

19:30ean, Txortains taldearen emanaldia

21:30ean, koadrilen afa-lostean, *Unsain* anaiak.

00:00etan, festen amaiera.

Zubietako jaiak

24, ostirala

19:00etan, jaien hasiera (buruhandiak, txalaparta...)

21:00etan, herri afaria
Ondoren, Kupela taldearekin dantzaldia.

25, larunbata

09:00etan, esnadeia (Donostiako txistulari banda).

11:00etan, meza nagusia.

11:30ean, hamaiketako.

Ondoren, soka-dantza.

18:00etan, XII. Trikitixa txapelketa.

Ondoren, buruhandiak.

22:30ean, bertsolariak:

Uxue Alberdi
Unai Muñoa
Iker Zubeldia
Iñigo Manzisidor (Mantxi)
Gai-jartzaile:
Iker Iriarte

00:00etan, Gaueko Itzalak taldearen kontzertua.

Ondoren, Laiotz taldearen emanaldia.

26, igandea

10:00etan, meza.

11:00etan, II. Sagardo Eguna

14:00etan, jubilatuen bazkaria.

16:00etan, mus txapelketa.

17:00etan, Zubietako bikotekako I. Bizikleta lasterketa.

18:00etan, patata tortila lehiaketa.

Ondoren, Ansorregi eta Larrañaga trikitilariekin afal ordurarte erromeria.

22:30ean, Ansorregi eta Larrañaga trikitilarien emanaldia.

Liburutegiko udako ordutegia

UZTAILEAN

Astelehenetan, 08:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Asteartetik ostiralera, goizez soilik, 08:00etatik 14:00etara.

Larunbatetan itxita

ABUZTUAN

Manuel Lekuona Kulturetxea itxita egongo da.



Manuel Lekuona kulturetxea

Oharrak

Eskerrak ematea

Oriako Karmengo Amaren jaien antolatzaileek eskerrak eman nahi dituzte lerro hauen bidez beraien laguntzaga emateagatik: eskerrak Lasarte-Oriako Udalari, Pilar Catalina sopranoari, Amaia Dorronsoro organistari, Urnietako Edurne lore-dendari, Billabonako Solano Trikitilari Eskolari, Ramon Uribeetxeberria, Xabier Andonegi eta Juan Luis Murua apaizei eta Txintxarri-ri aldizkariari.

Igerileku txikia itxita

Haurtxoentzat antolatu diren Igeriketa ikastaroak baldintza egokietan garatu daitezten, uztailean zehar asteartetan, ostegunetan eta larunbatetan, goizeko 10:00ak eta 10:30ak bitartean igerileku txikia erabiltzaile ororentzat itxita egongo da.

Santa Ana parodian parte hartzeko

Aurtengo Santa Ana parodian parte-hartu nahi badu-

zu; aktore moduan (testuarekin edo gabe), atrezzoan, dekorazioan edo/eta jantziekin lagundu nahi baduzu, jo Ttakuneko bulegora (Geltoki kalea 4), deitu telefonoz 943 371448 edo bidali mezu bat helbide honetara: kultura@ttakun.com.

Lourdes eta Miarriztera txangoa

Lasarte-Oriako Biyak-Bat erretiratuen elkarteak txangoa antolatu du, Lourdes eta Miarriztera. Txangoa uztailearen 22an da. Informazio gehiago eskuragarri dago, Biyak Bat egoitzeko bulegoan 10:30etatik 12:30etara edo 943 363 964 telefono zenbakian.

Udako ordutegia

Lasarte-Oriako Kirol Zerbitzuko kirol guneek udako ordutegia izango dute uztaileatik aurrera. Honela, kiroldegia astean zehar, goizez 7:00etatik 13:00etara eta arratsaldez 17:00etatik 22:00etara egongo da irekia,

baina igerilekua eguerdian 12:30ean itxiko da eta gauean 21:30ean, larunbatetan goizez bakarrik egongo da irekia 9:00etatik 13:00etara. Bulegoari dagokionez, astean zehar soilik egongo da irekia, uztailean 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldetan 17:00etatik 19:00etara eta abuztuan 10:00etatik 12:30etara. Kirol gunearen ordutegia, bi hilabeteetan, astean zehar 10:00etatik 12:30etara eta 17:00etatik 21:00etara eta larunbatetan 9:00etatik 13:00etara.

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxari@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxari@ttakun.com
txintxari@txintxari.info
www.txintxari.info



Lasarteoriatar ugari hurbildu ziren Dorre parkean antolatu zen Santa Ana azokara. Helduek erosten zuten bitartean, txiki eta gazteek parkean jolastu edo kandelak eta otarrak egiteko aukera izan zuten.

Egun paregabea azokan

TXINTXARRI

Ohizko lekutiz kanpo antolatu bazen ere, Artisauen XXVI. Santa Ana azokak giro ederra izan zuen atzo Dorre parkean.

Eguraldia lagun, lasarteoriatar ugari hurbildu ziren herriko, zein Estatu osoko eskulangileak ikusteko eta beren lana ezagutzeko.

Era berean, baratzeo eta baserriko produktu fresko, pastel eta erroskila goxo eta senda belarrak erosi edo talo bero-beroa dastatu ahal izan ziren janariaren atalean.

Lehenengo aldia azokan

Era berean, Koro Ortega eta

Arantxa Martin herritarrek estreineko aldiz jarri zuten postua.

“Hobbya da, bioi asko gustatzen zaizkigu eskulanak eta etxekoek bultzatuta animatu ginen,” azaldu digu, “gainera, harrera ona du eta jendeak erosten ditu bitxiak.”

Omenaldia

Eguerdian, Patxi Etxeberria eta Txomin Garmendia bertolarien saioaren ostean, Jose Mari Berasarte eta Cesar Bozal labangileek Joan Mari Arzak sukaldariari laban berezia oparitu zioten omenaldi gisa. Joan Mari asko eskertu zuen, “bihotzarekin egindako omenaldia baita.” •



Omenaldiaren ostean, Cesar Bozalek Joan Mari Arzaki azaldu zion labana nola egina zegoen.



Arantxa Martin eta Koro Ortégak aluminioz egindako bitxiak erakutsi zituzten azokan eta ongi saldu zituzten; ehogileek, berriz, era tradizionalagoan hariarekin egon ziren lan eta lan egun osoa.